

INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEEN (IKE) AKZIO EDOTA PARTAIDETZETAKO ZORROEN KUDEAKETA-KONTRATU DISKREZIONALA ETA INDIBIDUALIZATUA

KONTRATUAREN DATUAK ETA BALDINTZA PERTSONALAK

Kontratu-zk:

Zorroa: 0

Bulegoa: -

Data:

TITULARRAK:

Izena IFZ

Erabilera-erregimena:

MiFID titularra egokitasun-xedeetarako:

MiFID sailkapena:

BESTE PARTE-HARTZAILE BATZUK:

Izena IFZ **Lotura**

Posta-helbidea:

Kargu eta abonuetarako kontu lotua:

"Titular" gisa ageri diren pertsonak eta Kutxabankek IKEn akzio edota partaidetzetako zorroen eskumeneko kudeaketa-kontratu hau gauzatzea erabaki dute, eta euren sinadurarekin erabateko onespena eman diete kontratu hau osatzen duten eta ondoren deskribatuko diren baldintza partikularrei eta baldintza orokorrei:

BALDINTZA OROKORRAK

Lehenengoa: Kontratatzaileak

Honako hauek dira kontratu honen alderdiak:

* Kontratuan Titular gisa ageri den pertsona edo ageri diren pertsonak (aurrerantzean **BEZEROa**). Kontratu honetan lotura duten beste pertsona batzuk ere ager daitezke, esaterako, ahalordeduna, baimenduna, ordezkaria eta informazio-kudeatzailea.

Kutxabank S.A., Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta: 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa. A95653077 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eman zaio (hemendik aurrera Kutxabank).

Kutxabankek, Espainiako Bankuaren Erakunde Finantzarioen Erregistroan 2095 zenbakiarekin inskribatuta dagoenak, bigarren mailako honako merkatu hauetan hartzen du parte:

- Errenta Finkoa S.A.ko AIAF Merkatuko kide gisa.
- Espainiako Bankuko Zor Publikoaren Idaztoharren Zentraleko Erakunde Kudeatzaile da.
- Iberclear-en parte hartzen duen erakunde gisa.
- Bilboko Bursaren kide da.

Bere egoitza soziala: Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo; eta webgune korporatiboa <http://www.kutxabank.com>.

Kutxabank, S.A. Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Funtzari atxikita dago, legez sortutako erakundeari, zuzenbide pribatuko erregimenean aritzen denari eta kreditu-erakundeetan eraturako dirutako eta baloretako gordailuak bermatzea xede duenari.

Bigarrena: BEZEROaren sailkapena

Kontratu honetan, eman zaion sailkapena jakinarazten zaio BEZEROari, aurrez jakinaren gainean jarrita zegoenari. Halaber, kategoria horretan aldaketa eskatzeko duen eskubidearen berri eman zaio, eta tratamendu horretatik erator litezkeen babes-murriztapenen berri emango dio Kutxabankeki une horretan.

Zorroen kudeaketa diskrezionalaren zerbitzua Kontratu honetan xedatutakoaren arabera eta INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN eta haren Eranskinetan xedatutakoaren arabera arautuko da. BEZEROak aurrez edo kontratua gauzatzeko sinatu behar zituen dokumentu horiek.

Kontratu honetan xedatutakoaren eta INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN

xedatutakoaren artean desadostasunak badaude, Kontratu honetan xedatutakoa nagusituko da, baldin eta alderantzizkoa espresuki xedatzen ez bada. Baldintza horietan espezifikoki aurreikusi ez diren alderdiei dagokionez, aipaturiko INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN xedatutakoak aplikatuko dira.

Hirugarrena: Titulartasuna eta ahalordeak

Titularkidetasun bereizgabearen kasuan, Titularrek baimena ematen diote elkarri euretako edozeinek, beraien sinadura soilaren bitartez, kontratu honetatik eratorritako eskubide eta funtzio guztiak erabili ahal izateko.

Kontratuaren titularrak adingabea bada, haren legezko ordezkariak duenak sinatuko du kontratua. Kasu horietan, legezko ordezkariak/ek adierazten dute adingabearen ondasunen administratzaile gisa duten/dituzten erantzukizunak ezagutzen eta bere/beren gain hartzen dituztela, Kode Zibilarren 166. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Kutxabank salbuesten du/dute adingabearen ondarea kudeatzeagatik legezko ordezkariari egotz dakiokkeen edozein erantzukizunetik. Adingabearen legezko ordezkariak modu solidarioan gauzatuko da, salbu eta legezko ordezkariak dutenen arteko mankomunitate-araubidea espresuki zehazten denean.

Titularkidetasuna egoteak esan nahi du titulartasuna partekatzen duten guztien artean erabaki behar dutela nori egin behar zaion egokitasun-ebaluazioa Zorroren kudeaketa diskrezionalaren zerbitzua ondorioetarako.

Halaber, kontratu honetan batean eragiteko eskumena duten legezko ordezkariak edo pertsona ahalduak izendatzeak edo elkartzak, pertsona ahalduen edo legezko ordezkariaren eskuordetzea esan nahi du, ordezkariak duen haren izenean, produktuen edo inbertsio-zerbitzuen egokitasuna edo komenigarritasuna ebaluatzeko egiten diren informazio-errekerimenduak betetzeko.

Aipaturiko izapidea betetzeari lotutako betebeharrak oro dagokion pertsonak bete beharko du arestian aurreikusitakoaren arabera, eta pertsona horren ezagutza eta esperientzietan eta kontratuaren titularrak dituen inbertsio-helburuetan, arriskuarekiko tolerantzia eta balizko jasangarritasun-lehentasunak barne, eta finantza-egoeran eta -ahalmenean oinarrituta.

Informazio-errekerimendu horiek kontratu honetan baimendutako pertsonak ere bete ahal izango dituzte.

Laugarrena: Xedea

Kontratu honen xedea Kutxabankek Inbertsio Kolektiboko Erakundearen (aurrerantzean IKE) partaidetza edota akzioz osatutako zorroren kudeaketa-zerbitzu diskrezionala eta indibidualizatua ematea da. Ez da muga geografiko edo sektorialik egongo zorroaren osakerari dagokionez, eta zorroan osatzen duten tresna finantzarioekin egin daitezkeen transakzio-moteki dagokionez ere ez.

Kudeaketa-jarduerak hau BEZEROak hasieran edo ondorengo hainbat alditan jarritako ondarearen eta bere etekinen baturara mugatuko da soilik eta ezingo du inoiz ere gainditu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMV) ezartzen dituen kasu eta mugetan izan ezik.

Kutxabankek honako hauei buruzko informazioa biltzen du: BEZEROaren ezagutzak eta esperientzia, haren inbertsio-helburuak, arriskuarekiko duen tolerantzia barne, eta haren egoera eta gaitasun finantzarioa, galerak jasateko gaitasuna barne.

Bezera Profesionala baldin bada, eta espresuki aurkakoa adierazten ez bada, Kutxabankek pentsatuko du inbertsio-arloan nahikoa ezagutza eta esperientzia baduela.

BEZEROa izango da egokitasuna ebaluatzeko Kutxabanki emandako informazioaren erantzule. BEZEROak Kutxabanki jakinarazi behar dio kontratu hau izenpetzeko unean aditzera emandako datuen aldaketa, eta baita horiei eragin diezaiekeen edozein gertakari edo gorabehera ere.

Kutxabanki kontratu honetako zehaztapen, baldintza eta klausulen arabera jokatu du, eta kudeatzailearen irizpide profesionalak desbideratzea gomendatzen duenean edo kontratazioan gorabeherak sortzen direnean bakar-bakarrik desbideratuko da itundutako inbertsio-irizpide orokorretatik. Horrelako kasuetan, Kutxabankek, desbideratzeak erregistratzeaz gainera, berehalako emango dio BEZEROari zehatz-mehatz horren guztiaren berri.

Bosgarrena: IKEen partaidetza edo akzioen gordailua

Kutxabankek kontratu honen xede diren IKEen partaidetza edo akzioen erregistroa edo gordailuzaintza egingo du, eta dagokien kontuetako anotazioak eragingo ditu.

Seigarrena: Kutxabanken ahalmenak

Kutxabankek ahalmenik handienekin kudeatuko ditu, eta BEZEROaren izenean eta kontura, kudeaketa egitea dagokion IKEko akzioak eta partaidetzak administratu eta erabiltzeko eragiketa guztiak egin ahal izango ditu, IKE horiek kudeatzeko egin beharreko jarduketara, jakinarazpen eta ekimenak garatuz. Xede horretarako, behar diren agiri guztiak izenpetu ditzake.

BEZEROak baimena ematen dio Kutxabanki, bere kasa eta bere sinadurekin, IKEko akzio edota partaidetzen gaineko era guztietako erosketa-, salmenta-, harpidetza-, errenbolto-, intsuldaketa- edo truke-eragiketak agintzeko, Espainiako nahiz atzerrikoak. Halaber, dibidenduak jaso ditzake eta eragiketa horiek beraiekin dituzten eskubide guztiak gogobete ditzake eta betebeharrak guztiak bete eta, oro har, esleituta duen zorroa administratu eta kudeatzeko behar diren eragiketa guztiak gauzatu.

BEZEROarentzako emaitzarik onenak lortzen ahalegindu behar du Kutxabankek. Funtzioak kanporatzen baditu, zerbitzuak ematen dituen hirugarrenak bere jatorriko herrialdean baimenduta edo erregistratuta egon behar du eta lankidetzak-akordioa egon behar du tokiko agintaritzaren eskudunen eta hirugarrenaren herrialdeko agintaritzaren ikuskatzailearen artean.

Funtzioak kanporatzeak ez du aldatuko Kutxabanken erantzukizuna bere betebeharrak betetzeari dagokionez, eta ez du eragingo zerbitzuaren baldintzen ezabatzerik, aldaketarik edo galerarik.

Kutxabankek bezeroa informatuko du erakundeak BEZEROaren tresna finantzarioen edo funtsen gain duen edo izan dezakeen berme edo atxikipeneko edozein eskubideri dagokionez, edo tresna edo funts horiekiko duen edozein konpentsazio-eskubideri dagokionez ere bai.

Zazpigarrena: Baimenak

Kontu orokorrak (“omnibus kontuak”) erabiltzea atzerriko IKEekin egindako eragiketek eskatzen badute, Kutxabankek BEZEROaren berriazko baimena lortzen duen guztietan erabili ahal izango ditu, eta BEZEROa aurrez informatuko du hartuko

dituen arriskuei buruz, eta zehazki, hirugarren baten kaudimengabeziak eragindakoari buruz, eta baita entitate gordailuzainaren nortasunari eta kreditu-kalitateari buruz eta akzioak eta partaidetzak Kutxabanken izenean edo hirugarren baten izenean gordailututa dauden ere.

Kutxabankek BEZEROaren aurretiko baimen generikoa eskatuko du bere izenean eta ordezkari gisa, Kutxabank Gestión SGIIC, SAU-k edo Kutxabank Taldeko beste edozein entitatek kudeatutako edo merkaturatutako IKE batean partaidetzak eskuratzeko, eskuratze hori IKE horretan bertan dagoen posizioari batuta, itundutako galera-atalasea baino ehuneko handiagoa ordezkatzeko duenean BEZEROaren zorroan. Atalaseak ezin du gainditu kudeatutako zorroaren zenbateko osoaren %.

Kutxabankek ez du inoiz egingo Espainiako legeriak debekatutako eragiketarik eta ez BEZEROaren baimen ofiziala edo berariazkoa behar duenik, harik eta baimen horiek lotu arte.

Zortzigarrena: BEZEROaren betebeharrak

BEZEROak Kutxabank jakinarene gainean jarri behar du honako inguruabar hauei guztiei dagokienez:

- a) Egoera zibilaren aldaketa.
- b) Ezkontzaren ondasun-erantzua, aldaketa jasota dagoen Erregistro Zibilaren ziurtagiria aurkeztuz.
- c) Ezkontideen artean edo hirugarrenekin edozein egintza edo kontratu formalizatzea, kontratu honen xede diren ondasunen titulartasunari edo erabilgarritasun libreari dagokionez eta, oro har, bi ezkontideen kaudimen ekonomikoari dagokionez funtsezko aldaketa berekin duena.
- d) Inbertsioko irizpide orokorrak aldatzeko nahia, kontratu honetan xedatutakoaren arabera.

Bederatzigarrena: Informatzeko betebeharrak

Kutxabankek hiru hilean behin idatziz komunikatuko du BEZEROaren kontura egindako kudeaketa-jardueren aldizkako egoera honako informazio honekin:

- a) Entitatearen izena eta BEZEROaren kontuaren identifikazioa.
- b) zorroaren edukari eta balorazioari buruzko informazioa, zorroko tresna finantzario bakoitzaren datuekin, dagokion merkaturako balioarekin, edo arrazoizko balioarekin merkaturako balioa eskuragarri ez badago, eta informazioaren hasierako eta amaierako kutxako saldoarekin, eta informazioaren aldiaren zehar zorroak izan duen errendimenduarekin;
- c) informazioaren aldiaren zehar sortu diren zerbitzu-sariak eta gastuak, kudeaketaren zerbitzu-sariaren guztizko zenbatekoa eta exekuzioari lotutako guztizko gastuak gutxienez xehatuta, eta, egoki denean, hala eskatuz gero banakapen xehatuago bat emango dela dioen adierazpena;
- d) estalitako aldiaren egoerak izandako errendimenduaren eta enpresaren eta bezeroaren artean adostutako erreferentziarako adierazleak (halakori badago) izandako errendimenduaren arteko konparazioa;
- e) BEZEROaren zorroarekin lotuta informazioaren aldiaren jaso diren dibidendu, interes eta beste ordainketa batzuen guztizko zenbatekoa;
- f) zorroko tresna finantzarioekin lotutako eskubideak ematen dituzten beste sozietate-eragiketa batzuei buruzko informazioa;
- g) aldiaren zehar exekutututako eragiketa bakoitzeko, negoziazioaren egunari eta orduari buruzko informazioa, agindu-mota, zentroaren eta tresnaren identifikazioa, salerosketaren adierazlea, aginduaren izaera salerosketakoa ez bada, kopurua, unitateko prezioa eta guztizko kontraprestazioa, egokia bada, baldin eta BEZEROak ez badu aukeratzen exekutututako eragiketei buruzko informazioa eragiketaz eragiketa jasotzea; kasu horretan aldizkako egoera urtean behin helarazi beharko da gutxienez.

Kutxabankek urtero bidaliko du kudeatutako zorroa osatzen duen IKE bakoitzari dagokionez zergen aitortpenarako behar diren datuak.

BEZEROak eskatzen duen orotan, Kutxabankek informazio gehigarria emango dio egindako eragiketei buruz, zorroaren osaeraren inguruan egindako kontsultei buruz eta eragiketarako bitartekari lanak egin dituzten erakundeei buruz. BEZEROak hala eskatzen badu, Kutxabankek idatzizko abisu bat bidaliko dio exekutututako transakzio bakoitza berretsiz.

Gainera, BEZEROak edozein unetan eskatu ahal izango du exekutututako transakzio bakoitzari buruzko funtsezko informazioa eta berehalakoa jasotzea.

Era horretako zerbitzuek kostu bat dute, Kutxabanken tarifa-liburuxkan jasota dagoena; entitatearen edozein bulegotan eta bere web-orrian (www.kutxabank.es) eskura daiteke tarifa-liburuxka.

Kutxabankek BEZEROari jakinaraziko dio zorroaren balio globala, informazio-aldi bakoitzaren hasieran baloratzen den moduan, % 10 jaisten denean, eta, ondoren, % 10eko multiploetan, atalasea gaintzen den egun baliodunaren amaieran beranduenez, edo atalasea balioduna ez den egun batean gaintzen bada, hurrengo egun baliodunaren ondoren.

Kutxabankek palanka-efektuko tresna finantzarioak edo pasibo kontingenteak inplikatzeko dituzten eragiketak dituzten bezero txikizkari baten kontua mantentzen badu, BEZEROari jakinaraziko dio tresna bakoitzaren hasierako balioa % 10 jaisten denean, eta, ondoren, % 10eko multiploetan. Atal honetan sartutako informazioa tresnaz tresna emango da, bezeroarekin bestelakorik adostu ezean, eta atalasea gaintzen den egun baliodunaren amaieran beranduenez, edo atalasea balioduna ez den egun batean gaintzen bada, hurrengo egun baliodunaren ondoren.

BEZEROaren ordezkariari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera, kudeatutako zorroko akzioetatik ondorioztaturiko eskubide politikoak baliatzeko, Kutxabankek espresuki jakinarazi beharko dio BEZERO horri bai berak eta bai bere taldeak ordezkariak dagokien sozietateetako batekin izan dezakeen harreman edo lotura oren berri.

Klausula honetan erreferentzia egiten zaion informazio guztia BEZEROak espresuki jakinarazi duen posta-helbidera bidaliko da, baldin eta lineako bankuaren zerbitzua kontratatua ez bada, orduan bidalketa-sistema hori erabiliko baita.

Hamargarrena: Grabazioak

Kutxabankek BEZEROarekin izandako komunikazio telefoniko eta elektronikoa grabatu eta erregistratuko ditu –halakoen ondorioz eragiketak egiten badira edo egin badaitezke–, eta frogabide gisa erabili ahal izango dira zuzenean nahiz zeharka planteatu litekeen

edozein prozedura judizialean.

Grabazio eta erregistro horiek gordetzeko epea hamar urtekoa izango da, edo unean uneko araudiak adierazten duena.

Hamaikagarrena. Interes-gatazkak

Kutxabankek BEZEROa ohartaraziko du bere jardueraren garapenean izaten diren interes-gatazken inguruan. Alderdiak ados jartzen dira eta beren buruak erantzule egiten dituzte Baloreen Merkatuko legerian aplikatu beharrekotzat aurreikusten diren portaera-arauak kontratu honi aplikatzeaz.

BEZEROak Kutxabank jakinaren gainean jarri beharko du bateraezintasunezko egoerak edo kudeatutako ondarea IKE jakin batzuetan inbertitzea eragotz dezakeen gorabeheraren bat sortzen direnean.

Kudeaketa diskrezionalaren banakotasuna kontuan izanda ere, Kutxabanke, akzioen salerosketako aginduak arrazionalizatzearen, taldekatu ahal izango ditu titular desberdinen eragiketak indarrean dagoen araudian ezarritako mugen barnean. Kutxabanke zorro bat baino gehiagorako eragiketak batera eta IKE beraren gain egingo baditu, eta dena delako arrazoiren batengatik ezin baldin badira agindu guztiak bete, hainbanatu egingo du lortutako emaitza, parte hartzen duten zorro bakoitzarentzat emandako aginduaren bolumenaren proportzionaltasun-printzipioaren arabera. Aginduaren objektu diren baloreak prezio desberdinetan erosi edo eskualdatzen badira, Kutxabanke, alde batetik, zorro bakoitzak esleitua daukan identifikazio-zenbakia esleituko dio zorro bakoitzari, eta bestetik, berriz, prezio desberdinen exekuzio-ordena kronologikoa, horrela, identifikazio-zenbaki txikiena duen bezeroari denboran lehenbizi exekututako prezioa egokituko zaiolarik.

Kutxabanke bere bezeroen artean interes-gatazkarik ez sortzen saiatuz eramango du bere jarduera, horietako bakoitzaren interesak zainduz, alegia; eta eragiketak egiteko bitarteko gisa baliatzen dituen merkatuko kideetatik edo finantza-erakundeetatik -eta berdin eginkizun eta ahalmenak betetzerakoan kontratatzen dituen gainerako erakunde zerbitzugileetatik ere-, bere bezeroentzat une bakoitzean merkatuko egoerak ematen dituen baldintza abantailatsuenak lortzen saiatuko da. Eta horrek esan nahi du, merkatuan bere bezeroentzat dagoen preziorik onena egiaztatzeko jarri beharreko arreta eta ardura jarriko dituela Kutxabanke, eragiketa moten eta -bolumenaren arabera.

Kutxabank da Kutxabank Gestión SGIIC, SAU-ren akziodun bakarra. Plantea litezkeen interesen arteko gatazka-egoerak araudi aplikagarriaren arabera ebaztzeko dira, bezeroari egin beharreko jakinarazpenak barne.

Interes-gatazken kudeaketa-politika bezeroen esku dago Kutxabanken web-orrian. (www.kutxabank.com).

Hamabigarrena: Komisioak

Kutxabanke BEZEROarengandik jasoko ditu IKE akzio eta partaidetek osatutako zorroak kudeatzeari dagozkion tarifak, bitartekaritza-gastuak eta beste komisio batzuk, kontratu honetako BALDINTZA PARTIKULARRETAN jasotako baldintza ekonomikoetan aurreikusitakoaren arabera, Tarifen Informazio Liburuxkan jasotakoak inoiz gainditzen ez dituztenak. Liburuxka hori Kutxabanken bulegoetan eskuratu edo haren web orrian kontsulta daiteke (www.kutxabank.es).

Kutxabanke, kontratu honi dagozkion komisioen tarifetan eta gastu jasanarazgarrietan egiten diren aldaketa guztien berri emango dio BEZEROari. Informazio hori hartzen duenetik hilabete bateko (1) epea izango du BEZEROak aldaketa eskatzeko edo kontratua iraungitzeko, eta ez zaizkio tarifa berriak aplikatuko harik eta epe hori igarotzen den arte. Alabaina, tarifa BEZEROarentzat argiro mesedegarria izango balitz, berehala aplikatuko da.

Hamahirugarrena: Lotutako kontua

Kontratu honetatik ondorioztatutako eragiketek eragiten dituzten kobrantzak eta ordainketak kontratu honetako BALDINTZA PARTIKULARRETAN adierazitako lotutako kontuan idatziko dira. Kontu horretan bertan zordunduko da Kutxabanken alde itundutako kudeaketa-komisioaren zenbatekoa, eta baita kontratu honetan zehazten diren gainerako gastuak ere.

BEZEROak euskarri-kontuan izango ez balu kudeaketa-komisioa ordaintzeko adinako saldorik, baimen espresa ematen dio Kutxabanki zorpeko hori estaltzeko bere kudeaketa-zorroa osatzen dutenen artean baloreak besterentzeko, eta sor litezkeen gastuak BEZEROaren kontura izango dira. Kasu horietan, Kutxabanke aurreabisua emango dio BEZEROari, partaidetzak besterenduko diren ordena adieraziz, eta baita hura aldatzeko eskubidea ere.

Hamalagarrena: Kontratuaren iraupena eta ebazpena

Kontratu honen iraupena mugagabea da, eta BEZEROak amaitutzat eman dezake bere indarraldiko edozein unetan eta inolako justifikaziorik arazoitu gabe eta Kutxabanke, aldiz, hilabete lehenagoko abisuarekin.

Kontratua garaiz aurretik ezerezteak ez die eragingo titularrei aditzera eman aurretik itunduta indarrean leudekeen eragiketak izapidetu, likidatu eta ezerezteari, horiek aplikatu behar zaizkien baldintzen arabera funtzionatuz jarraituko baitute, kontratu honetako estipulazioetan oinarrituz.

Kontratua aurreratuta suntsiarazten bada, Kutxabanke eskubidea izango du komisioen aurreko likidaziotik kontratua indargabetu arterainoko aldiko tarifen ondoriozko zati proportzionalaren komisioak jasotzeko eta baita likidatu gabeko eragiketen ondoriozko komisioak ere.

Baina aurretik adierazitakoa alde batera utzita, Kutxabanke kontratua ebazti ahal izango du, hilabeteko aurreabisurik gabe, honako kasu hauetako edozeinetan:

- Kontratu honen kariatz bere gain hartutako edozein betebeharrak bete gabe utziko balu BEZEROak, bereziki ordainketari dagozkionak, bai datetan eta bai zenbatekoetan.
- BEZEROa Kutxabanken zordun aterako balitz, dena delako izaera juridikoko eragiketa batetik, kontratu honen indarraldian normal edo aurrez mugaeguneratu eta likidatutakotik.
- Administratutako edozein ondasunen bahitura edo enkantea eragin dezakeen prozedura judizial, administratibo edo notariala sustatuko balitz BEZEROaren aurka.
- Komisioak ez badira ordaindu edo bezeroarekin kreditu-arriskua badago, edp kapitalak zurtzearen edo merkatu abusuaren arauak ez badira bete.

Aurreko kasuetan, Kutxabankek BEZEROaren berariazko eta atzera bota ezinezko baimena du bidezkoak diren komisio eta gastuak berreskuratzen.

Behin kontratua baliogabetutakoan, Kutxabankek hamabost eguneko epea izango du emandako aginduak bete eta egikaritzeko, BEZEROarengandik zordundutako komisioak jasotzeko eta egindako kudeaketako kontuak itxi eta horien arrazoiak azaltzeko. Hemen aurreikusitako edozein kasutan, zorroa osatzen duten IKEen akzio edota partaidetzak zorroa osatzen dutenen arteko arrisku txiki edo ertaineko funts batera modu ordenatuan eskualdatzea eragingo du kontratu hau amaitzeak.

Kontratua amaitzen denean, Kutxabankek lehen deskribatutako likidazioaren eta itxieraren ondoriozko ondarea BEZEROaren esku jarriko du, xede horretarako honek ematen dizkion jarraibideak betez.

BEZEROaren heriotzak kontratua suntsiaraztea eragingo du, 16. klausulan xedatutakoaren arabera.

Hamabosgarrena: Aldaketak

BEZEROak ezingo ditu, bere kabuz, zorroaren kudeaketa barneko IKEko akzioak eta/edo partaidetzak erabili, murriztu edo aldatu, eta ezta kontratu honetan aurreikusitako kudeaketa-erregimenetik kendu ere.

BEZEROak, ordea, kontratu honek kudeatzen duen Ondarea alda dezake, murriztuz edo handituz, honako arau hauen arabera:

a) Ondarea murrizteko, eskaera egin beharko dio Kutxabanki, eskudiru bidezko diru-itzulketara egin nahi duen edo Kutxabankek merkaturatutako kontratu honek kudeatutakoetako ez den Inbertsio Kolektiboko beste Erakunde batera eskualdatu nahi duen.

Murrizketak ondorioak izango ditu une horretan zorroa osatzen duen edo osatzen duten IKEko edo IKEetako akzio eta/edo partaidetzetan, bertan duen partaidetzaren proportzioan, eta eskualdatzearen edo diru-itzulketaren agindua jasotako datatzat joko da hura eragin duen ondare-murrizketa Kutxabanki eskatu zaioneko.

Hirugarren baldintza partikularrean adierazten dira kudeatu beharreko Ondarea murriztetik sor daitezkeen hainbat ondorio.

b) Ondarea handitzeko ezinbestekoa izango da euro-kopuru gutxienerako baten ekarpena egitea eta ondare horrek kudeatu beharreko ondarea handitzeko dokumentua sinatzeko unean hasiko den kontratatutako kudeaketa diskrezionalari berariaz eragitea.

Hamaseigarrena: Heriotza

BEZEROa hiltzen bada, kontratu honen kariatz Kutxabanki emandako aginteak, ordezkariak eta eskumenek indarrean jarraituko dute xede guztietarako, BEZEROaren oinordekoek, behar bezala onetsitakoek, modu frogagarrian ematen dioten arte Kutxabanki aipaturiko heriotzaren berri. Kutxabank erantzukizun orotatik salbuetsita geratuko da aipaturiko oinordekoen aurrean kontratu honen pean egindako eragiketei dagokienez heriotza gertatu ondoren eta modu frogagarrian gertakari horren berri eman arte.

Kutxabanke heriotzaren berri izaten duenean, kontratu hau suntsiaraziko du eta, Kutxabanke merkaturatutako arrisku txiki edo ertaineko funtsetara antolatuta egindako eskualdatzearen bitartez, oinordekoek Kutxabanki egiaztatzen dioten arte zorroa osatzen duten ondasunak eskuratzeko lege- eta zerga-betebeharrak betetzen dituztela, hura osatzen duten IKEetako akzioak eta/edo partaidetzak ibilgetuko ditu. Kasu horretan, kontratuaren komisioak likidatuko dira aurreko likidaziotik BEZEROaren heriotzaren berri emandako data arte.

Oinordekoek modu fidagarrian eman behar dute heriotzaren berri.

Hamazazpigarrena: Kontratu-baldintzen aldaketa

Baldintza orokor horien aldaketa Kutxabanke proposa dezake jakinarazpen pertsonalizatu eta idatziaren bitartez, gutxienez hilabeteko aurrebisuarekin edo aldaketa egiten den unean jakinarazpen horretarako indarrean dauden legezko prozeduren arabera eginda.

Aldaketak ez onartzeak kontratu hau hutsaltzea eragingo du.

Alabaina, aldaketak BEZEROarentzat argiro mesedegarriak badira, berehala aplikatuko dira.

Hemezortzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak

Kontratu hau formalizatzeko kontratugileek emandako izaera pertsonaleko datuei aplikatu beharreko erregimena eta lehendik eragiketa eskatzeko eta aztertzeko emandako datuak eta Kutxabankeko zure harremana mantentzeko eta garatzeko ematen direnak arautuko dira Baldintza Orokor hauen Eranskinean xedatutakoaren arabera. Eranskin hori baldintza horien atala da.

Hemeretzigarrena: Jakinarazpenak eta helbidea

Edozein jakinarazpen-mota bidaltzeko, BEZEROak hauek zehazten ditu: edo "Lineako bankua" zerbitzu telematikoaren postontzia, "Kutxabank a distancia" zerbitzua kontratatuta edukiz gero, edo helbide elektronikoa, posta elektronikoen zerbitzua kontratatuta edukiz gero, edo kontratu honetan adierazitako posta-helbidea, zerbitzu horiek kontratatuta ez baditu.

BEZEROak Kutxabanki jakinarazi behar dio helbidea aldatuz gero eta helbide elektronikoa eta posta-helbidea aldatuz gero gutuneria-ondorioetarako, jakinarazitzat jotzen baitira azkena erregistratutako helbidera Kutxabanke bidalitako komunikazioak. BEZEROak Kutxabankera jo ahal izango du edozein bulegotan edo posta-gutuneriak edo posta elektronikoz. Nolanahi ere, eskaerak egiten dituen pertsona modu fede-emailean identifikatzea eskatzen duten kudeaketak presentzialki "Kutxabank a distancia" zerbitzuaren bidez (telefonozkoa edo Internet bidezkoa) edo horretarako jartzen diren bestelako bitartekoen bidez egin beharko dira, ematen diren gakoak edo sarbide-identifikatzaileak erabiliz eta jarduketara-kanal horien kontratu espezifikotik aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Hogeigarrena: Komunikazio komertzialak

Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuen Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kutxabanke BEZEROari jakinarazten dio jakinarazpen komertzialak bidaltzeko asmoa posta elektronikoz edo komunikazio elektronikoko beste edozein bitartekoren bitartez.

Aurka egiteko eskubidea erabil dezakezu kontratu honetako eranskinean, datuen babesaren atalean, ezarritakoarekin bat etorriz.

Hogeita batgarrena: Komunikazioak eta kontratuaren kopia

Alderdiek adosten dute komunikazioak beren egoitzetara zuzentzea edo adierazitako helbideetara, eta beste alderdiari aldaketen berri ematera behartzen dituzten beren buruak.

BEZEROak Kutxabankera jo ahal izango du kontratu honi buruzko aginduak emateko edo balizko hutsaltze bat formulatzeko; kontratua sinatzeko erabilitako bideak erabili ahal izango ditu, edo Kutxabankekin esanbidez gaitutakoak edo azken honek haren alde jarri ahal izan dituenak.

BEZEROa gaztelaniaz komunikatu ahal izango da erakundearekin, eta baita dokumentuak eta dokumentu horiei buruzko informazioak jaso ere, eta, autonomia-erkidegoko araudiak hala aurreikusten duen kasuetan, baita Espainiako Estatuak ofizialtzat aitortuta dituen beste hizkuntzetan ere.

Kontratu-harremanaren edozein unetan, Titularrak Kutxabankengandik eskura dezake, paperean edo beste euskarri iraugarri batean, kontratu-baldintzen kopia bat. Halaber, titularrak edozein unetan eskuratu ahal izango du inbertsio-zerbitzuen prestaziorako oinarritzko kontratuaren baldintza orokorren kopia bat. Gainera, kontratu hori edozein unetan kontsultatu ahal izango da <http://www.kutxabank.es> webgunean

Hogeita bigarrena: Gorabeherak eta erreklamazioak izapidetzea

Gorabeherak ebazteko, normalean eragiketak egiteko erabiltzen duen Entitatearen bulegora joan ahal izango da BEZEROa, eta, jasotzen duen erantzuna gogobetekoa ez bada, erreklamazioa jarri ahal izango du, Kutxabankeko Bezeroentzako Arreta Zerbitzura zuzenduta (Kale Nagusia 30-32, 2. solairua 48009 - BILBO), aipatutako Zerbitzuaren Funtzionamendu Araudiarekin bat, eta kexa edo erreklamazioa aurkeztu aurretik agintari eskudunek ezarrita dituzten prozeduren arabera (prozeduren berri modu orokorrean emango da Kutxabanken bulego guztietan eta webgunean).

Aipatutako Kutxabankeko Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan kexa edo erreklamazio bat aurkeztea BEZEROak agintari eskudunen aurrean kexa edo erreklamazio bat aurkeztu ahal izateko bete beharreko aurretiazko instantzia bat da, BEZEROak aipatutako Kutxabankeko Zerbitzutik jasotzen duen erantzuna gogobetekoa ez bada, edo erantzuna epearen barruan ematen ez badu Zerbitzuak.

Hogeita hirugarrena: Gordailuen berme-funtsa

Kutxabank S.A. Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Funtsari atxikita dago, une bakoitzean legez aurreikusitako gehieneko mugaraino bermatzen duen estaldurarekin, gaur egun 100.000 eurokoa dena erakunde eta bezeroko.

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Lehena: Zorrora egindako ekarpena

1.1 Zorro hau kontratatzeke eskudiruaren edo IKEen partaidetzen ekarpena egin beharko da, hain zuzen ere 0 euroko edo gehiagoko zenbatekoa. Bezeroak jada Kudeaketa diskrezionaleko zorroren (Cartera Patrimonio, Cartera Evolución, Cartera Rendimiento y Cartera Inversión) zerbitzu bateko titularra den kasuetan, 0 euroko gutxieneko zenbateko bateko zorroa kontrata dezake, baldin eta bere zerbitzuaren posizio global balioetsia 0 eurokoa bada gutxienez.

1.2 BEZEROAK adierazten du ondorengo IKEko eskudiru eta/edo baloreen jabea dela, denak Kutxabanke merkaturatutakoak:

a) Eskudirua: Zenbatekoa: euroak.

b) Inbertsio Kolektiboko Erakundeak:

Izena	Kontratu-zk.	Saldoa (likidazioko azken balioa) (*)
-------	--------------	---------------------------------------

(*) barne hartzen du likidatu gabeko harpidetza, diru-itzulketa eta eskualdatzeen zenbatekoaren zenbatespena.

Kontratu hau sinatzen denean hasiko da kudeaketa.

Bigarrena: BEZEROAREN berariazko baimenak

2.1 BEZEROAK baimena ematen du kontratu honetako BALDINTZA OROKORRETAKO zazpigarren klausulako bigarren paragrafoan aurreikusitako eragiketak egiteko, zorroaren zenbatekoa baino % . handiagoak direnean.

2.2 BEZEROAK baimena ematen du kontratu honetatik eratorritako informazioa eta jakinarazpenak berariaz adierazi duen jakinarazpenak jasotzeko helbidera bidaltzeko, online banka zerbitzua kontratatua duenean salbu, kasu horretan azken hori izango baita erabiliko den bidaltze sistema.

2.3 BEZEROAK baimena ematen dio Kutxabanki, indarreko araudiari atxikita, kontu orokorrak (“omnibus kontuak”) erabiltzeko, atzerriko IKEen besteren konturako ohiko negoziazio eragiketek horrela eskatzen dutenean.

I. ERANSKINEAN kontu orokor horien eragiketek dituzten arriskuei buruzko informazioa ematen zaio BEZEROARI, eta baita kontu horiek gordailututa dauden entitateei buruzkoa eta horietako bakoitzaren kreditu kalifikazioari buruzkoa ere.

2.4 BEZEROAK baimena ematen dio Kutxabanki kudeatzea eskatzen dion egungo eta etorkizuneko ondare gutzia edozein izaera eta forma juridikoko Espainiako edo atzerriko IKEen partaidetza eta/edo akzioen ordezkari baloreetan soilik inbertitzeko, kudeaketa IKE anizkoitzetako inbertsioetan gauzatu daitekeelarik, Kutxabanken talde ekonomikoko erakundeek haien kudeaketan, gordailutzean, merkaturatzean edo horiekin zerikusia duen beste edozein zereginetan esku hartzeko aukera ematen dutenak barne.

2.5 Kutxabanke ez du jasoko, ez zuzenean ez zeharka, BEZEROARI zuzenean jasanarazitakoak ez bestelako zenbatekorik.

2.6 Era berean, baimena ematen da inbertsioen parte bat eguneroko itzulketak egiteko aukera ematen ez duten edo inbertsioa epe jakin batean mantentzeko eskatzen duten IKEetan gauzatuta egon dadin, itzulketako komisioen eragina saihesteko. Nolanahi ere, gorabehera horiek BEZEROARI jakinaraziko zaizkio halakorik gertatzen denean.

BEZEROARI jakinarazi zaio inbertsio horrek inbertsio funts arruntek baino askoz ere likidezia txikiagoa izango duela, eta horregatik, ez dela gomendagarria premiazko diru beharra izan dezakeenarentzat.

Hirugarrena: Oharrak

3.1 Intsuldaketen kasuan, zorroan jarritako zenbatekoa intsuldaketa jasotako datakoa izango da.

3.2 BEZEROAREN errenbolto partzial baten ondorioz zorroaren saldoa eurotik beherakoa denean, zorroa modu aktiboan kudeatzeari utzi egingo zaio eta une horretan daukan osaera mantenduko da, horren ondorioz kudeaketako inolako eragiketarik egin gabe.

3.3 Kutxabanke kontratua desegin ahal izango du, baldin eta ondarearen balio arestian aipaturiko saldoa baino beherago geratzea eragiten duen itzulketa egiten denetik hiru hilabeteko epean ez baldin bada zenbateko hori osatzeko ekarpen berririk egiten. Kontratu hutsaldu ondoren, Kutxabanke kontratu hau azkenduko du zorroa osatzen duten IKEen akzioak eta/edo partaidetzak Kutxabanke merkaturatutako arrisku txiki edo ertaineko funtsetara modu ordenatuan eskualdatuz.

3.4 Zorroaren zatirik handiena Kutxabank Gestión SGIIC, SAU-k kudeatutako funtsek osatuta egon daiteke, taldeak kudeaketa- eta gordailuzaintza-komisioak jasotzea eragiten dutenak.

3.5 Zorroak kudeatzeko kontratu horrek ez dio aukerarik ematen BEZEROARI, bere kabuz, kudeatutako ondareari buruzko aginduak emateko.

Laugarrena: Kudeaketa komisioa eta zorroaren balorazioa

4.1. Kontratututako zorro mota: 0

4.2. Zorroren kudeaketa zerbitzuari dagokion tarifa: bi komisio ezartzen dira: zorroaren balio efektiboaren gaineko ko urteko komisio finkoa, eta zorroaren errebalorizazioari aplikatutako eko komisio aldakorra. Bi tarifak batera aplikatuko dira.

Komisio finkoa aplikatuko da zorroaren balio efektiboaren gainean, eguneroko sortzapen bidez. Urtebetetik beherako aldietan, sortzapen alditik igarotako egun kopuruari dagokion tarifa orokorraren arabera proportzioaren sortzapena egingo da.

Komisio aldakorra kalkulatzeko kontuan hartu beharrekoak:

a) Kudeatutako zorroaren urteko errebalorizazioa izango da komisio finkoari dagokion zenbatekoa kentzearen emaitza (komisio finkoari dagozkion zergak barne). Errebalorizazio hau kalkulatzeko, alderatu egingo da zorroak urtarilaren leian –edo hasieran datan, geroagokoa bada– duen balio efektiboa urte bakoitzeko abenduaren 31n duenarekin, aldi horretan eginiko ekarpenak kenduta eta kenketak gehituta.

b) Gainera, emaitzen gaineko komisioa aplikatuko ez den sistema bat ezartzen da: hain zuzen, zorroaren errebalorizazioa aurretik lortutako eta komisio aldakorra jasan duen balio bat baino txikiagoa denean. Hala, emaitzen gaineko komisioa egotziko da soilik kasu honetan: zorroaren errebalorizazioa emaitzen gaineko komisioa bat egonik aurretik lortu den beste edozein errebalorizazio baino handiagoa denean.

Kontratua ezeztatzen denean, dagokion komisioa sortuko da, errebalorizazioaren gainean kalkulaturik ehunekoak, honela ulertuta errebalorizazioa: kudeatutako zorroak uneko urteko urtarrilaren 1ean –edo hasieran datan, geroagokoa bada– duen balio efektiboaren eta amaiera datan duenaren arteko kendura. Aldi horretan eginiko ekarpenak kendu eta zorrotik ateratako aktiboak gehituko dira.

Zorroaren Kudeaketa zerbitzuan ez dira sartzen bitartekaritza zerbitzuak, zaintzakoak eta administraziokoak, ezta bezeroari eman dakiokkeen beste edozein zerbitzurik ere. Horregatik, bereiz kobratuko dira zerbitzu horiek.

4.3 Komisioak handitu egingo dira, hala badagokio, BEZarekin edo legeriaren arabera unean-unean ezarritako zergarekin.

4.4 BEZEROAK kudeaketa komisioa ordaindu behar dio Kutxabanki kontratuari lotutako kontuan eginiko zordunketa bidez .

Hori horrela, Kutxabankek zorroko partaidetzak errenboltsatu ahal izango ditu. Hala ere, BEZEROAK espreski eskatzen badu, komisioa zuzenean zordunduko zaio bere kontuan.

Komisio finkoa urtean behin kobratuko da. Dena dela, BEZEROAK espreski eskatzen badu, hiru edo sei hilean behin kobratu ahal izango da.

Komisio aldakorra urtean behin kobratuko da.

4.5 IKEen balorazio irizpideak, eguneko ondarearen batez bestekoa kalkulatzeari begira, CNMVk zorroa osatzen duen IKE bakoitzarentzat ezarritakoak izango dira.

4.6 Kudeaketa komisioak ez ditu gaudituko Tarifen Informazio Liburuxkan ezarritako gehienekoak.

4.7 Kudeaketa komisioa kalkulatu da Tarifen Informazio Liburuxkan ezarritakoaren arabera. Liburuxka hori Kutxabanken bulegoetan eskuratu edo haren web orrian kontsulta daiteke (www.kutxabank.es).

4.8 Bezeroei idatziz jakinaraziko zaie kontratuan aplika daitezkeen komisio eta gastuen tarifetan eginiko edozein aldaketa, eta ematen den aldizkako edozein informaziori erantsi ahal izango zaio.

Bezeroek hilabeteko epea izango dute, jakinarazpen hori jasotzen dutenetik, erakundearekiko kontratu harremana aldatu edo ezeztatzeko, eta epe hori igaro arte ez dira aplikatuko tarifa berriak. Hala ere, aldaketa berehala aplikatuko da onuragarria baldin bada, argi eta garbi, bezeroarentzat.

Bosgarrena: Alderdien adierazpenak

5.1 BEZEROAK adierazten du BALDINTZA OROKORRAK, BALDINTZA PARTIKULARRAK ETA HORIEN ERANSKINAK jasotzen dituen kontratuaren ale bat jaso duela, Kutxabankek ondo aholkatu duela azalpenen bat eskatu duen kontratuaren inguruko alderdi guztietan, eta Kutxabanki emandako datuen egiazkotasunaren erantzule egiten dela.

5.2 Kutxabankek adierazten du kontratu hau formalizatu aurretik bere inbertsio-esperientziari buruzko, helburuei buruzko, finantza-ahalmenari buruzko eta arrisku-lehentasanari buruzko informazioa jaso duela BEZEROARENGANDIK, eta emaitza kontratuko II. ERANSKINEAN jasota dagoela.

5.3 BEZEROAK 4.1 baldintza partikularrean adierazitako zorroa kontratatu nahi du, III. ERANSKINEAN jasotako inbertsioen ezaugarriak bere gain hartuz.

5.4 Esku hartzen duten alderdiek, orrialde honetan sinatu dutenek, adostasuna eta onespina ematen diote kontratu honi bere osotasunean eta bertan xedatutako termino, baldintza eta erantzukizunetan, eta hori frogatzeko eta hitzartutakoa betetzeko, bikoiztuta sinatzen dute alderdi bakoitzari ale bat emanaz.


Dokumentu hau sinatu aurretik, mesedez, irakurri dokumentu honen baldintza orokorren eranskinean agertzen den Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Kutxabank

Ahalordez

Aitor Aranburu Olabarri

Txikizkako Negozioko Zuzendari Nagusia



Bilbon, 2023ko uztailearen 20an Vicente María del Arrenal Otero jauna notario aurrean 1.521 protokolo-zenbakiarekin egindako ahalordearen arabera

I. ERANSKINA: OMNIBUS KONTUEN ERABILERA

Atzerriko IKE inbertsioetarako, ohiko jardunak entitate bereko bezeroentzako kontu orokorrak erabiltzea eskatzen duen merkatuetan aritzen denean, “nominee” zerbitzua erabiliko da, horrek inbertsioa gauzatzeko behar diren baloreak Kutxabanken izenean eta hirugarrenen kontura omnibus kontuak izenekoetan erregistratzea eragiten du, bezero bakoitzaren izenean erregistratu beharrean. Erregistro sistema hori gure araudian jasota eta onartuta dago.

Hura erabiltzearen ondorioz, BEZEROAK ezin du aipaturiko balore horiei buruzko agindurik eman, Kutxabanken bitartekaritzarekin ez bada. Nolanahi ere, Kutxabankek barnetik darama bezero bakoitzari bere jabetzakoak diren eta aipaturiko sistemaren pean geratzen diren partaidetzak edo akzioak esleitzeko erregistroa, eta beraz, BEZEROA une oro dago identifikatuta.

Kutxabankek bezeroari emango dio Entitateak BEZEROAREN finantza tresnei edo funtsei buruz duen edo izan dezakeen edozein berme edo atxikipen eskubideen baldintzen berri, edo tresna edo funts horiekin loturik duen edozein konpentsazio eskubideren berri. BEZEROARI ohartarazten zaio hirugarren baten kaudimen gabezia arriskua, eta kontu orokorrak erabiltzeak erabilgarritasunean aldi baterako murrizketa, balioa narriatzea edo bezeroaren jabetzako Finantza Tresnak edo Finantza Tresna horietatik eratorritako eskubideak galtzea eragin dezakeela, ondoren xehatuko diren lege eta eragiketa arrisku espezifikoaren ondorioz.

Ondorio horietarako, jakinarazten zaizu omnibus kontuak gordailututa dauden entitateak (entitate zaintzaileak) eta herrialdea eta horien kreditu kalitatea honako hauek direla:

- *BLACKROCK-ek kudeatutako IKEetarako: The Bank of New York Mellon (International) Limited, Luxemburgeko sukurtsala. Helbidea: 2-4, rue Eugène Ruppert, L-2453 Luxembourg, Luxemburgeko Dukerri Handia, epe luzerako Standard and Poors A+rating-arekin.*

- *JP MORGAN ASSET MANAGEMENT-ek kudeatutako IKEetarako: J.P.Morgan Bank Luxembourg SA. Helbidea: 6, route de Tréves L-2633 Senningerberg Luxembourg, epe luzerako Standard and Poors A rating-arekin.*

- *AMUNDI ASSET MANAGEMENT-ek kudeatutako IKEetarako: CACEIS Bank Luxembourg. Helbidea: 5, Allée Scheffer L-2520, Luxembourg, epe luzerako Standard and Poors A rating-arekin.*

- *FIDELITY INTERNATIONAL-ek kudeatutako IKEetarako: Brown Brothers Harriman (Luxembourg) S.C.A. 80 Route d'Esch L-1470 Luxembourg, epe luzerako Fitch A+ rating-arekin.*

Erakundeak bere izenean mantenduko du omnibus kontua Allfunds Bank S.A. inbertsio kolektiboko erakundearen bitartekaritzan espezializatutako Espainiako banku entitatearen bitartez. Kutxabankek erabakiko balu Allfunds Bank S.A.-ren bitartez bere zorrarako posizioak mantentzea, Kutxabankek eskatuko luke Kutxabankeko bezeroen omnibus kontua ez den kontu batean erregistratzeko bere posizioak.

II. ERANSKINA: TITULARRAREN ETA ZORROAREN

Zorro-aholkularia

Bezeroak ez badu eguneratzen egokitasun-testa bi urteko epean, kontratua amaitutzat joko da hamalagarren Baldintza Orokorrean jasotako ondorioekin ("kontratuaren iraupena eta suntsiarazpena").

Bestalde, testaren aldizkako berrikuntzaren ondorioz, egokia bada bezeroari kontratatutako zorroaren arrisku-profila baino baxuagoa esleitzea, eta bezeroak ez badu onartzen bere posizioak bere profil berriari dagokion zorrora eskualdatzea, Kutxabanke kontratua suntsiaraziko du, eta bukaera-kasuetarako hamalagarren Baldintza Orokorrean jasotako ondorioak izango ditu ("kontratuaren iraupena eta suntsiarazpena"). Halaber, aditzera ematen da profil berria KONTSERBADOREA izango balitz, Kutxabanke adierazitako baldintzetan kontratua suntsiaraziko lukeela, profil horretara doitzen ez den zorrerik ez duelako. Kasu batean zein bestean, kontratuaren suntsiarazpena bezeroari jakinarazita gauzatuko da, amaiera horren eraginkortasun-data baino hilabete lehenago, gutxienez.

Horrez gain, testa aldizka berritzearen ondorioz bezeroak jasangarritasun-lehentasun bakartzat adieraziko balu bere inbertsioei lehentasuna emango lieketen tresnak kontuan hartzea eta ez arlo horretan agintari eskudunek definitutako ingurumen-jasangarritasunarekin bat datozen helburuak lortzen nabarmen lagunduko duten jardueren zerrenda, Kutxabanke kontratua suntsiaraziko du lehentasun horretara egokitzen den Zorrerik ez badu, eta, horrenbestez, hamalagarren Baldintza Orokorrean amaiera-kasuetarako jasotako ondorioak eratorriko dira ("kontratuaren iraupena eta suntsiarazpena"). Kontratuaren suntsiarazpena bezeroari aurrez jakinarazita gauzatuko da, amaiera horren eraginkortasun-data baino hilabete lehenago, gutxienez.

III. ERANSKINA: KONTRATATUTAKO

BEZEROAK, behin bere profil inbertsorea zehaztu eta II. ERANSKINEAN jasota dagoen arabera gomendatutako inbertsioa iradoki ondoren, 0 kontratatu egin nahi du, ondoren azalduko diren inbertsioen ezaugarriak bere gain hartuta:

Zorroaren hasierako osaera, IKE bakoitzak zorroan duen pisua eta zorroa osatzen duten funtsen komisioren xehetasuna:

IKEaren izena

Zorroan duen

Urteko batez besteko komisio haztatua, dagokion kudeatzaileak funts bakoitzari zuzenean jasanarazitakoa eta hasierako osaeraren arabera kalkulaturakoa: % zorroaren ondarearen.

Komisioaren kontzeptuak eta hartzaileak:

- Kudeaketa:
- Gordailua: %.

ZORROA osatzen duten funtsen osaera eta zorroan duten pisua hilean behin eguneratzen da une oro egokitzeke merkatuaren igurikimentera.

Kontratu honetako bederatzigarren Baldintza Orokorrean xedatutakoaren xedeetarako, Kutxabanke bezeroari jakinarazten dio BEZEROAK kudeaketaren emaitza ebaluatu ahal izateko erabiliko duen erreferentziako indizea honako hau dela: 0.

ZORRO bakoitza profil bakoitzerako definitutako errenta aldakorreko bitartean arabera kudeatzen da. Errenta aldakorreko inbertsio-maila kudeatzaileek une bakoitzean daukaten merkatu-ikuspegiarekin bat etorriko da, ezarritako gutxieneko eta gehieneko mailen barruan. ZORRO honek bitarte hauek ditu definituta:

	errenta aldakorreko gutxieneko %	errenta aldakorreko gehieneko %
0	0%	0%

Hala, adierazitako ehunekoak aldi baterako aldatu ahal izango ditu Kutxabanke merkatuko baldintzen arabera. Kasu horretan BEZEROARI jakinaraziko zaio.

ZORROAK ez du aurrez finkatutako errentagarritasun-bermerik.

Kutxabanke egokitasun-baldintzetan emango du kontratu honen xede den zerbitzua, hau da, egindako egokitasun-ebaluazioaren emaitzatik ondorioztatzen diren mugen barruan eta haren jarraibideen arabera.

V. ERANSKINA: KONTRATUAN EGINIKO

Ondoren, jakinarazi nahi dizugu Kutxabank Gestión SGIIC, SAU inbertsio-fondoei dagokienez, ordezkatu egingo dela egungo erakunde gordailuzaina, Kutxabank, S.A., eta Cecabank SA arituko dela haren ordezkari, egoitza Madrilgo Alcalá kaleko 27an duena. Aldaketa hori egingo da 2020ko martxoaren bigarren hamabostaldian.

A1. Sinadura digitalizatua

Kontratu honen titularrek baimena ematen diote Kutxabanki beren sinadura jasotzeko idazketa digitalizatzen duten gailuen bidez. Edozein dokumentutan sartutako sinadura digitalizatuak paperean eskuz idatzitako sinaduraren balio bera izango du.

A2. Sinadura telematikoa

Kanal ez-presentzialen bidez (Internet, mugikorra, telefonoa) egindako eragiketa guztietarako, Bezeroa autentifikatzeko unean indarrean dagoen sarbide-prozesua balidatuko du Kutxabankek. Eragiketa batzuetarako, autentifikazio-protokolo gehigarriak eskatuko ditu Kutxabankek. Bezeroak edozein kanal ez-presentzialetan eragiketak egitean erabiltzen duen gako pertsonala kontratu-sinaduratzat joko da eskuz idatzitako sinaduraren balio berarekin. Kutxabankek sarbideko sistema alternatiboak edo osagarriak jarri ahal izango ditu pasoko sistema berri batekin, eragiketaren segurtasuna babesteko beharrezkotzat jotzen diren kontrolekin.

Sinaduraren bat kanal ez-presentzialekin egiten bada, bai beren jarduera komertzialarekin edo enpresarialarekin nahiz lanbidearekin lotuta ez dagoen helburu batekin jarduten duten pertsonak bai jarduera komertzialarekin nahiz enpresarialarekin lotu gabe eta irabazi-asmorik gabe jarduten duten pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek hamalau egun naturaleko epea izango dute kontratua atzera botatzeko. Horretarako, Kutxabankek harremanetan jar daitezke 900 44 55 66 telefonoaren bidez edo Kutxabanki idatziz posta ziurtatu urgentez helbide honetara: Kutxabank telefono-zerbitzua, Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo.

Eskubide hau ez da aplikatuko: finantza-merkatuen gorabeheren mendeko prezioa duten zerbitzu finantzarioei buruzko kontratuetan, hornitzaileak kontrola ezin ditzakeenak eta bertan behera uzteko eskubidea erabiltzeko aukera ematen duen epearen barruan (dibisak aldatzea, diru-merkatuko tresnak, balore negoziagarriak, IKEetako partaidetzak, geroko kontratuak eta interes-tasen gaineko trukatzek, indizeei, prezioei edo interes-tasei erreferentzia egiten dieten kontratuak, lotutako kontratuetako negozioetako batek gutxienez, aurretik aipatutako transakzioen bat ekarriko duena, etab.); bi alderdiek osotasunean exekutatu dituzten kontratuetan Bezeroak hala eskatuta eta bezeroak berak atzera egiteko eskubidea erabili aurretik zein transferentzia-aginduetan eta kobrantza-kudeaketaren eragiketetan; Notarioaren parte hartzearekin egindako bezeroen deklarazioak eta gaiari buruzko indarreko legean aurreikusten diren pentsio-planak zein gainerako kontratu eta produktuak. Eskubide hori erabiltzeko eskaintako zerbitzuak edo sortutako interesak –hala dagokionean– ordaintzea dakar.

Sinadura telematiko honen bidez, Bezeroak espresuki eskatzen dio Kutxabanki kontratu hau formalizatzea urrutiko komunikabide-teknika bat erabiliz, kontratuaren baldintzak eta informazioa paperezko euskarrian edo beste euskarri iraunkor batean eskuratzeko aukera ematen ez duena kontratuaren sinadura edo eskaintzaren onarpena baino nahikoa denbora lehenago.

A3. Kontratuaren eraginkortasunik eza

Kontratua ez da eraginkorra izango kontratuko titular guztiek espresuki onartu arte baldintza hauek beren eskuzko sinaduraren edo sinadura telematikoaren bidez, kontratuan aurreikusitako moduan.

Halaber, kontratu honen eraginkortasun-datatzat hartzen da kontratuko azken esku-hartzaileak sinatutako eguna.

Kontratuaren titularrek 14 eguneko epea dute kontratu hau onartzeko. Epe hori iragandakoan titular guztiek sinatu ez badute, Kutxabankek ulertuko du kontratuaren titularrek atzera bota dutela, eta, beraz, ez da eraginkorra izango.

Baldintza hauek aldatuko balira titular guztiek kontratuari esanbidezko adostasuna eman aurretik, kontratua balio gabetzat joko litzateke.

A4. Kontratu-harrera

Kontratu-dokumentu honen harrera fisikoa edo elektronikoa hautatu ahal izango du titularrak.

A5. Bezeroarekiko komunikazioak

Bezeroak, kontratu-harremanaren edozein unetan, Kutxabanketik eskura dezake –paperean edo beste euskarri iraunkor batean– edozein kontratuaren baldintza orokorren kopia bat, horiekin batera eransten diren kontu aktiboetako eta pasiboetako kargu- eta abonu-eragiketeki aplikatzekoak diren balorazio-arau orokorrak barne, eta, gainera, Bezeroaren esku daude Kutxabanken webgunean, www.kutxabank.es, edozein unetan kontsultatu ahal izateko.

Kutxabank bere Bezeroekin komunikatuko da erabilgarri duen edozein bide telematiko edo elektronikorekin, baita Kanal Anitzeko Bankuaren zerbitzu operatiboekin ere: Online banka, mugikorra, etab. Eta SMS mezuak eta bestelako mezuak ere bidali ahal izango dira bankuko erregistroetan agertzen diren Bezeroaren edozein helbidetara, betiere segurtasun-baldintzak eta araudi aplikagarria eta/edo kontratu bidezko harreman egokiak errespetatuz. Bezeroak edozein unetan eskatu ahal izango dio Kutxabanki ez bidaltzeko mezurik bitarteko telematiko edo elektronikoko bidez. Kasu horretan, Kutxabankek bidalketa-gastuak kobratu ahal izango dizkio. Aurrekoa gorabehera, Kutxabankek –arrazoi operatibo eta/edo teknikoengatik eta indarrean dagoen lege-arauditik eratorritako eskakizunengatik– kanal alternatiboak aukeratu ahal izango ditu (adibidez, posta arrunta); kasu horretan, ez ditu kostu horiek jasanaraziko, araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik. Bezeroak bankuari jakinarazi ahal izango dio, halaber, uneko kontratuari buruzko edozein komunikazio, gorabehera, zalantza edo kontsulta, bankuak horretarako haren eskura jarritako bideak erabiliz (bulegoak, online banka, etab.) edo doako 900 44 55 66 telefonora deituz. Gainera, Kutxabankek bezeroak jakinarazi dizkion komunikabide telematiko edo elektronikokoak erabili ahal izango ditu bankuak oharrak, alertak eta/edo aurrez jasota ez dagoen bestelako informazioa bidaltzeko, eta bankuaren iritziz bezeroaren interesekoak izan daitezkeenak, sinatutako kontratuaren izapidetzei buruzkoak nahiz horiek erabiliz egindako eragiketeki buruzkoak.

Bezeroa gaztelaniaz komunikatu ahal izango da Kutxabankek, eta bai dokumentuak eta bestelako informazioa jaso ere, eta, autonomia-erkidegoko araudiak hala aurreikusten duen kasuetan, baita Espainiako Estatuak ofizialtzat aitortuta dituen beste hizkuntzetan ere.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Arduraduna	<p>Identitatea: Kutxabank, S.A. Posta-helbidea: Gran Vía, 30-32 - 48009 Bilbao Helbide elektronikoa: info@kutxabank.es Datuen babeseko ordezkararen kontakua: dpo@grupokutxabank.com</p>
Erabilitako datuen kategoriak	<p>Informazio zehatza aurki dezakezu Politika honen 3. apartatuan</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuk eman dizkiguzun datuak, kontratuak altan ematean edo gurekin harremana izatean - Identifikaziorako eta harremanetarako datuak, diru-sarrerren maila, produktu eta zerbitzu kontratatuak, produktuarekiko harremana (titularra, baimendua edo ordezkarria), MiFID kategoría - Produktu eta zerbitzuak mantentzeari buruzko datuak. - Finantza-datuak, Entitatearekin kontratatutako produktuak eta ordainketa-historia. - Zure eta gure artean horretan, bideokonferentzietan, telefono-deietan edo bitarteko baliokideetan ezarri ditugun komunikazioetatik lortutako datuak. - Gure online kanal identifikatuetan egin dituzun nabigazioetatik lortutako datuak, nabigazio-historiari buruzkoak, baldin eta baimena eman baduzu.

	<ul style="list-style-type: none"> - Gure web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egin dituzun nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egin duzun nabigazioa (gailuaren ID, publikizatearen ID, IP helbidea eta nabigazio-historia), baldin eta zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu. - Kutxabanke gainerako datu-kategoriak aztertu eta tratatetik inferitu edo ondorioztatutako datuak. - Bezeroak kategoriatan eta segmentuetan multzokatzea edo Finantza Tresnen Merkatuei buruzko Zuzendararen (MiFID) arabera kategorizatzea. - Ordaintzeko edo ez ordaintzeko probabilitateak edo arrisku-mugak esleitzen dituzten scoring puntuazioak. - Zuzenean eman ez dizkiguzun datuak, jendearentzat eskuragarri dauden iturrietatik, erregistro publikoetatik edo kanpo-iturrietatik lortutakoak. - Asnef (Equifax) eta Badexcug (Experian) fitxategietatik ondare-kaudimenari eta kredituari buruz lortutako datuak. - Finantza-sisteman mantentutako arriskuei buruzko datuak, Espainiako Bankuaren Arriskuei buruzko Informazio Zentralaren (CIRBE) datu-basetik lortutakoak - Nazio Batuek, Europar Batasunak, Espainiako Erresumak, Erresuma Batuak eta/edo AEBk ezarritako nazioarteko zehapen ekonomiko-finantzarioen arloko lege, erregulazio, gidalerro, ebazpen, programa edo neurri murriztaileetan sartuta dauden pertsonen edo erakundeen datuak. Department of the Treasury's Office of Foreign Assets Control (OFAC). - Jendearentzat eskuragarri dauden datuak, iturri haueetatik eskuratutako: prentsako kontsultak, sare sozialak, Internet, egunkari eta aldizkari ofizialak, erregistro publikoak, Administrazio publikoaren ebazpenak, Katastroa, telefono-gidak eta elkargo profesioletako kideen zerrendak. - Iruzurra prebenitzeko sistemetatik (hala nola Confirma-tik eta Iberpay-tik) eskuratutako informazioa. - Administrazioaileei, kargu funtzionalei eta sozietate-loturei buruzko datuak: jarduerari buruzko informazioa osatzeko erabiliko ditugun INFORMAREN datu-baseetatik ateratako datuak. - Nekazaritza-dirulaguntzen eta -aseguruen datuak: Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtsak (FEGA) eta Nekazaritza Aseguruen Estatuko Entitateak (ENESA) argitaratutako datuak. - Zuri lotutako higieziei eta ibilgailuei buruzko datuak: Katastroetik lortutako datuak eta Trafiko Zuzendaritza Nagusitik lortutako ibilgailuen oinarriko datuak, zure higieziei eta ibilgailuei buruzko informazioa osatzeko erabiliko ditugunak. - Higiezin, ibilgailuen edo beste ondasun higigarrien eta aktiboen balorazioari buruzko informazioa, iturri aitortuetatik lortutakoak, haien kaudimena baloratzeko aukera ematen dutenak. - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik lortutako datuak, lan-jarduera motari (norberaren edo besteren konturako lana) eta haren EJSNri buruzkoak. - Interes orokorreko hornidura-zerbitzuen (energia, komunikazioak, etab.) konpainietatik lortutako profiei buruzko informazioa.
<p>Tratamenduaren helburu nagusiak eta legitimazioa</p>	<p>Informazio zehatza aurki dezakezu Politika honen 4. apartatuan</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bezeroari alta ematea, kontratatze eskabideak aztertzea, kontratatu aurreko neurriak aplikatzea eta arriskuak ebaluatzea. - Kontratuzko harremana gauzatu, kudeatu, kontrolatu, mantendu eta eguneratzea, barne hartuta bezeroen errekamazioak kudeatzea. - Kontabilitateko, legezko, zerga-arloko eta administrazioko betebeharrak betetzea, barne hartuta kreditu-gaitasunarekin eta kapitalak zuritzea eta/edo iruzurrezko jokabideak izatea prebenitzairekin lotutakoak. - Diruzko betebeharrak betetzeari edo ez betetzeari buruzko datuen tratamendua, legez gaitutako edo interesdunaren adostasunean oinarritutako kasuetan. - Kapitalak zuritzairene eta terrorismoa finantzatzearen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea. - Kutxabanken interes legitimoan oinarritutako iruzurrezko jokabideak prebenitzeko tratamenduak. - Hartzaileen baimenenean edo, hala badagokio, interes legitimoan babestutako merkataritza-komunikazioak igortzea. - Hartzaileen baimenean oinarrituz, ekitaldi publiko eta pribatuei buruzko komunikazioak bidaltzea. - Scoring delakoko eta arrisku-ebaluazio produktu eta tratamendu gehigarriak kontratatze profila sortzea, interes legitimoaren printzipioan edo, hala badagokio, interesdunaren adostasunean babestuta, erabilitako datuen arabera. Tratamenduok eragin nabarmeneko automatizatutako erabakien ondoriozkoak badira eta ez badira beharrezkoak kontratu bat egiteko, beti oinarrituko dira legezko betebeharrak betetzean edo adostasunean. - Interesdunaren adostasunean oinarritutako promozio eta zozketetarako egindako tratamenduak. - Kutxabanken legezko betebeharrak betetzean oinarritutako bidezaintzako tratamenduak, banketxeko transakzioen eta instalazioen segurtasuna bermatze aldera. - Xede estatistikoa edo Entitate barneko jarraipeneko xedea duten tratamenduak, interes legitimoan oinarritutak. - Salaketak izapidetzea eta diziiplina-jarduketak kudeatzea. - Datuak beste enpresa batzuei lagatzea, komunikazio komertzialak bidaltzeko.
<p>Hartzaileak</p>	<p>Informazio zehatza aurki dezakezu Politika honen 6. apartatuan</p> <ul style="list-style-type: none"> - Agintaritza arautzaile eta gainbegiratazaileak (adibidez, Espainiako Bankua eta Europako Banku Zentrala) - Kutxabank Talde sozietateak, eta agintaritza edo organismo ofizialak, bai eta beste herrialde batzuetako ere, Europar Batasunaren barruko zein kanpokoak, terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuen forma larrien finantziarioaren aurka borrokatzeko eta kapital-zuritza prebenitzeko. - Espainiako Bankuaren Arriskuen Informaziorako Zentrala. - Diruzko betebeharrak ez betetzeari buruzko fitxategiak, ez-betetze hori gertatuz gero. - Titulartasun Finantzarioen fitxategia. - Iruzuraren Prebentziario Informazioaren hartu-emaneko zerbitzua. - Epaitegiak eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak. - Auditoretzako erakundeak. - Transakzioetan ezinbesteko laguntzaile moduan aritzen diren beste entitate batzuk, esaterako, preskriptoreak, higiezin merkatuko bitartekariak, higiezin atari modura lotuta egon ala ez, notarioak eta erregistro publikoak. - Kutxabank Store, S.L.U. - Kutxabank Talde sozietateak eta enpresa kolaboratzaileak eta/edo partaidetuak. - Transakzioetan nahitaezko kolaboratzaile gisa jarduten duten beste erakunde batzuk, batik bat preskriptoreak, higiezin merkatuko bitartekariak -higiezin atari gisa lotuta egon edo ez-, notarioak, erregistro publikoak, tasazio-sozietate homologatuak eta mezularitza-operadoreak.
<p>Eskubideak</p>	<p>Interesdunak errekamazio bat aurkeztu ahal izango du kontrol-agintariaren aurrean, eta datu pertsonalei dagokienez sartzeko, zuzentzeko, ezabatze, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuak eramateko eta erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko eskubideak baliatu ahal izango ditu, profilak egiteko aukera barne. Horretarako, idazki bat bidali beharko du, posta elektronikoz edota tratamendu-arduradunaren egoitza sozialera posta arruntez.</p>
<p>Jatorria</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzenean interesdunetik, haren legezko ordezkarietik edo ahalduzetatik. - Entitatearekin lankidetzat-hitzarmenak egin dituzten erakunde publiko eta pribatuetatik eskuratutak. - Jendearentzat eskuragarri dauden iturriak, hala nola prentsa, sare sozialak, Internet, egunkari eta aldizkari ofizialak, erregistro publikoak, Administrazio publikoaren ebazpenak, Katastroa, telefono-gidak eta elkargo profesioletako kideen zerrendak. - Kutxabank Talde beste sozietate batzuen bidez.

Kutxabanke Pribatutasun-politika hau garatu du -edozein unetan sar zaitezke bertara, www.kutxabank.es webguneko "Pribatutasuna" ataletik-. Bertan, zurekin ezartzen ditugun harremanetan zure datu pertsonalak nola erabiliko ditugun kontsulta dezakezu. Informazio hau paperean ere eska dezakezu, gure bulegoetako edozeinetan.

